

Araudizko otoitzaz asten da batzar ori.

Igaroko Bagile'an egindako batzarraren agiria irakurten da eta agobatez onetsia izan da.

Erdera-euskera iztegi barriaren lanak zelan doazan adierazoten dabe lan orretan daragoioen euskaltzainak.

Azkue jaunak diardu lenagoko batzarretan asiriko lana irakurten eta heronetzaz entzuleak oartzoren batzuk dagitsoez.

Eta beste barik araudizko otoitzaz amaituten da batzarra.

\* \* \*

Bilbao'n 1941'gko Urrilaren 30'an, Euskaltzaindiaren etxean batzen dira Azkue, Zamarripa, Irigoyen eta Oleaga Euskaltzain jaunak, il oneri dagokon batzarra egitera, Azkue jauna maipuru dala.

Araudizko otoitzaz emoten yako asiera.

Azkue jaunak adierazoten dau oraintsu il zala Juan Karlos Gerra euskaltzain argi ta agurgarria. Au data-la Euskaltzaindiak beronen tamalik andiena agertzen dau ta ildakoaren gogoaren alde ilotoitz bat egiten dau.

Urrengo, azkenengoz Donostia'n egindako batzarraren agiria irakurten da ta aobatez onetsi da.

Onetan agertzen da batzartokian Euskaltzaintzat izentauta dagoan Angel Irigaray jauna, kisa ori bere gain pozik artzen dabela ta dagokio-  
nean ekiteko gertu dagoala esanaz. Batzarkideak atseginez ikusten dabe Irigaray jaunaren etorrerea ta pozik dantzuez bere esanak.

Gero iztegi erdera-euskera gertuten dabilzan euskaltzainak euron lana zelan daroen azaltzen dabe. Onezaz eta lan onetarako laguntza andia izango litzakela-ta, "Junta de Cultura Vasca" deritxon baltzuari, A. Lhande'k gerturiko iztegi euskera-erdera bat nunbaitetik zuzendu ta Euskaltzaindi oneri ekarri dayola eskatutea erabagi da, Irigoyen jaunaren lepora eskari ori egitea utzirik.

Azkue jaunak orainarteko azkenengo batzarretan aitaturiko lana irakurten daragoyo, ta heronetzaz batzarkideak oarpen batzuk dagioez.

Azkenez erri-esakera batzuk aitatu ta aztertzen dira.

Eta beste barik araudizko otoitzaz batzarra amaitzen da.

\* \* \*

Bilbo'n 1941'gko. Lotazila'ren 20'an, Urkijo, Irigoyen eta Oleaga euskaltzainak Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Euskaltzaindiaren etxean il oneri dagokon batzarra egiteko.

Araudizko otoitzaz asten da batzarra.

Len-aurreko batzarra'ren agiria irakurri da ta ago-batez onetsi.

Bizkaiko Ekauta edo Diputazioa'ren asmoz aurtzen euskerea dala-ta irakastaro bat emongo dala dino Irigoyen jaunak eta pozik artzen da barri ori.

Azkue jaunak daragoyo lenagoko batzarretan asiriko lana irakurten.

Eta beste barik, urrengo batzarra Donostia'n Ibeltza'ren 30'an egitea ta batzar orrentzat Gipuzkoa'ko Ekauta'ri bere etxeko gela bat eskatutea ebatsi ta, araudizko otoitzaz amaitzen da batzar au.

\* \* \*

Donostia'n 1942'gko. Urtarrila'ren 30'an. Azkue jauna maipuru dala, batzen dira Urkijo, Irigoyen, Irigaray ta Oleaga Euskaltzainak, il oneri dagokon batzarra egitera.